



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Udaleko zeregin askotariko peoi, zeregin askotariko ofizial, gidari eta garbitzaileen lan poltsak eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak eta deialdia.

2024ko irailaren 25eko 5384 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez honakoa xedatu da:

Lehenengoa: Aldi baterako kontratazioak edo bitarteko funtzionarioen izendapenak beharizan premiazko eta geroraezinei erantzuteko direnez, eta Udalak indarrean dituen lan poltsak nahikoak ez direnez beharizanoi aurre egiteko, lan poltsa berriak eratzeko hautaketa prozesuak arautuko dituzten oinarri eta deialdi hauek onartzea:

- Zeregin askotariko ofizialak (I. eranskina).
- Gidariak (II. eranskina).
- Garbitzaileak (III. eranskina).
- Zeregin anitzeko peoiak (IV. eranskina).

Bigarrena: Lan poltsa berri honen eraketarekin aurreko lan poltsak indargabetzea.

Bermeon, 2024ko irailaren 27an. — Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly



I. ERANSKINA

ZEREGIN ASKOTARIKO OFIZIALEN LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Lehenengoa.— Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Bermeoko Udaleko zeregin askotarako ofizialen lan poltsa eratzea lehiaketa-oposizio librearen bidez.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 10. Artikuluak xedatutakoa kontuan izanda, eta zerbitzuaren beharrianak aldi baterako edo bitartekotasunean betetzeko eratu-ko da lan poltsa hau.

Deialdi honen ondorioz sortutako lan poltsa Bermeoko Udaleko funtzionario izateko hautaketa prozesutik sortutakoaren osagarria izango da. Bestalde, lan poltsa honen eraketarekin, gainerako lan poltsak indargabetu egingo dira.

Lan poltsa honek beste lan poltsa bat osatu arterako indarraldia izango du.

Bigarrena.— Lanpostuaren ezaugarriak

Zeregin askotarako ofizialen lanpostuak, Administrazio Bereziko eskalan, Zerbitzu berezien azpi-eskalan, C2 sailkapen taldeari eta 12. Mailari dagozkion ordainsari-maila dauka.

Lanpostuaren bete beharreko funtzio nagusiak:

- Lorazaintzako eginbeharrak antolatu, zuhaitzak, lorategiak eta oro har udalaren ardurapekoak diren gunen berdeen zaintza eta mantenimendua lortzeko.
- Lorazaintzako peoiari dagozkion lanak zeintzuk diren adierazi egunero eta horri dagozkion segurtasun neurriak hartu eta zaindu.
- Lorazaintzako enpresa pribatuaren lanaren gainbegiratze eta koordinazioa.
- Arkitekto eta aparejadorearekin koordinazioa, gunen berdeei dagokienean.
- Landareak eta zuhaitzak landatu eta haien segurtasunaz arduratu.
- Ureztapen automatikoaren ardura, diseinua eta kudeaketa.
- Makinariaren mantenua.
- Hesi, zuhaizka makinaria eta loreen aurrekontuak prestatu.
- Ongarrien eta produktu toxikoen kudeaketa.
- Makinaria erabili: furgoneta, dumper, eskabadora etab.
- Mantenimenduko arduradunak agindutako margotze-lanak egin, lan horiek eskatzen duten eginbehar guztiak eginez (baita andamioak ipini bere lanerako beharrezkoak direnean).
- Herriko bakuak, umeen jokoak, paperotziak...konpondu.
- Arratoi benenoa banandu eta usoak murrizteko kanpaina lagundu.
- Lurperatzeak egin, hilobi, nitxo eta familiako panteoietan.
- Indusketak eta Desehorzketak egin.
- Udalerriko kanposantua ordenan eta garbi mantendu.
- Errausketarako labea garbi mantendu eta bere mantenuaz arduratu.
- Igeltsero lanak egin eskoletan eta udal eraikinetan.
- Kanean piboteak eta seinaleak jarri.
- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin bat datozen gainontzeko zereginak.

**Hirugarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak**

Hautagaiak betekizun guzti-guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitzen den egunean. Onartua izateko eta, horrela denean, hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezko betekizunak hauek dira:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaioen estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, gurasoen kontura bizi badira.
2. 16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.
3. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 6. Xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloa, edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.
4. Gida baimena izatea (B).
5. Deitutako lanpostuak nahitaezko 1. Mailako hizkuntza-eskakizuna dauka. Baldintza hau, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu edo ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen Dekretuan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko 64/2008 Dekretua aldatzen duen 48/2009 Dekretuko 1. Artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da. Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskera-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuetsiko da.
6. Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.
20 eurokoak izango dira, Agiriak emoteagaitik ordaindu beharreko ordenantzak arautzen dauen 2024ko Ordenantza fiskalaren arabera.
Hautakea prozesuan izena emotean, tasa ordaintzeko beharrezana sortzen denez, erregistro orokorretik eskaria aurkezten den unean, tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontuan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da izangaia.
Behin hautagaiak izena eman eta tasa ordaintzen badu, nahiz eta deialdiaren baldintzak ez bete, ez zaio ordaindutako tasa itzuliko.
Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:
 - Ordainketa «Autokitapenak» ataletik egin behar da, Bermeoko Udaleko Egoitza elektronikoko lotura honetan:
Egoitza Elektronikoa (bermeokoudala.eus).
 - Txartelaz, arreta zuzeneko Berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.
 - Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
 - Banketxeetan.
7. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du baldintza hori betetzen dela, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.



8. Diziplina espediente bidez edozein administrazio publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetarako.

Oinarri hauetan zerrendatutako betekizun guzti horiek eskabideak aurkezteko azken egunean eduki beharko dira, eta hautaketa prozeduran mantendu.

Laugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eredu ofiziala Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan eskuratu daiteke.

Eskariarekin batera, Hizkuntza Eskakizunaren agiria eta oinarri hauetan eskatutako titulua aurkeztu behar dira.

Izangaiek merituak zerrendatu behar dituzte eskaera orrian. Baina eskaera orriarekin batera ez dute aurkeztu behar meritu horiek egiaztatzeko ziurtagiririk.

Eskariak aurkezteko bideak:

On-line: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>

— Egoitzatik egiteko asistentzia behar izatekotan, deitu 010 telefonora (946 179 100 Bermeotik kanpo deitezkotan) hitzordu bidez Berhaz bulegoan laguntza eskaintzeko.

— Modu elektronikoan egitera behartuta ez dauden interesdunen kasuan:

Aurrez – Aurrekoa: Berhaz Bulegoan.

Ertzilla 6-8 Bermeo.

Ordutegia:

8:00-15:00: Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

8:00 -14:00 eta 16:00-18:00: Astearte eta ostegunetan.

— Udan Goizez bakarrik

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiria eta izena emateko eskatzen diren beste agiriekin batera, hogeit (20) egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko personal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen kontrol edo azterketak egiteko.

Prozesuaren amaieran, zeregin askotarako ofizialen lan poltsa eratuko da. Hori dela eta, izangaiek, eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzearen aurka dauden: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada, hautagaiak baimena ematen duela ulertuko da.

Bosgarrena. — Izangaia onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udalaren iragarki oholean eta webgunean ipiniko da. Modu berean, 10 egun balioduneko epean, izangaiek egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluan adierazitakoaren arabera.



Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta erakundearen iragarki-oholean eta webgunean ipiniko da. Behin behineko zerrenda behin betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada, zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko bada ere.

Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua jar daiteke, hilabete bateko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea hauen arabera eratu da: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 81 eta 189 artikulua; Administrazioaren zerbitzupeko langileen sarrerari buruzko Araudi Nagusia onartu zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua.

Epaimahai mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren arabera kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

Botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprotetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute. Modu berean, epaimahaiaren eraketari dagokionez, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 1/2022 Legearen 21. Artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu. Epaimahaiaren erabakian aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan eta webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Epaimahaiakideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

Epaimahaiak izango dituen titular eta ordezkoen izen-deiturak jakinaraziko dira. Epaimahaiakideak eztegi egin daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. Artikuluan aurreikusitakoa gertatzen bada.

Eratzeko ekitaldian, hautaketa-prozesua behar moduan garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu epaimahaiak. Baliozko eran jarduteko, kideen gehiengoak, titularrak edo ordezkioak, bertaratu behar dira, eta beraien artean nahitaez izan behar dira epaimahaiak eta idazkaria. Epaimahaiak argituko ditu arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak. Horrez gain, aurreikusi ez diren kasuetan zer egin behar den erabakiko du. Epaimahaiak, jakinarazpenak egiteko eta gertakarien berri emateko, Bermeoko Udalean izango du egoitza.

Epaimahaiaren jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokituko zaio une guztietan. Epaimahaiak kide guztiak hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; hark hitza izango du baina botorik ez. Botoen gehiengoarekin hartuko dira epaimahaiaren erabakiak. Berdinketarik egonez gero, epai mahaiburuaren botoak ebatziko du.

Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua.

Hautaketa prozesuaren lehen aldia oposizioa izango da.

Oposizio aldia

Oposizio-fasean gehienez ere 70 puntu lortu ahaliko dira.



Oposizio-faseak hiru ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailerak izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko du, gutxienez, Bermeoko Udaleko webgunean eta iragarki taulan.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengorik egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta Epaimahai Kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituztenean izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Ariketak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

Epaimahai kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo Epaimahai Kalifikatzaileak identifikatzeko egokitutako jotzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzeritarren Nortasun Zenbakia...).

Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasteko gutxieneko epea 72 ordukoa izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badiu.

Ariketa bakoitzaren ostean epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazioak aurkezteko. Edonola ere, kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatutako epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko dira, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez baliatzen, behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

Epaimahaiak proba bakoitzerako oposiziogile bakoitzaren anonimatua eta konfidentzialtasuna bermatzeko metodorik egokiena zein den baloratuko du, eta metodo hori aplikatzeko neurriak hartuko ditu, bai proba egiterakoan, bai zuzentzerakoan.

Lehen ariketa: Ezagutza teorikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzailerak

I. eranskineko gai zerrendarekin lotutako test-erako galdera-sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun anizkoitzekin, eta horietako bat zuzena izango da. Epaimahaiaren irizpidearen arabera geratuko da galdera-kopurua finkatzea, probaren iraupena eta abar.

Ariketa hau 0tik 20ra bitartean baloratuko da. Gutxienez 10 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Zuzenak ez diren erantzunak hiruren bat kenduko diete erantzun zuzenei.

Bigarren ariketa: Ezagutza praktikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzailerak

Ariketa praktikoa. Izangaiek lanpostuen zereginekin lotutako ariketa praktikoa bat edo gehiago egin beharko dituzte.

Ariketa hau 0tik 50 puntura bitartean baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Hirugarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzailerak

Deialdiko lanpostuari 1. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio; beraz, euskararen hizkuntza eskakizun hori eduki behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Euskararen ezagutza maila euskarako proba gaindituta egiaztatuko da, eta proba hori gai edo ez gai joko da.

Nolanahi ere, euskarako proba egiten den aurreko egunera arte, izangaiek, aipatutako hizkuntza eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ofizioz kontsul-



tatuko ditu izangaiak alegatutako hizkuntza-eskakizunak. Honako baldintzaren bat bete beharko da laugarren ariketa egitetik salbuesteko:

- 1. hizkuntza eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetutako titulu edo egiaztagiri bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, xedatutakoari jarraituz (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekidezteko dena).
- Kasuan kasuko baliokidetza eskuratua izatea, hain zuen ere euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren indarrez.

Edonola ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidetutako ziurtagirien edota tituluen lortze data, nahiz azterketa egin beharrik ez izatea dakarten ikasketen onarpenaren lortze data euskarako probari dagokion lehen ariketa egin aurrekoa izango da.

1. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria ez dutenen kasuan, prozesuaren beste fase bat izango da hori egiaztatzeko probak egitea. Epaimahai Kalifikatzaileak aditzera emango du hautaketa-prozesuko zein unetan egingo den euskarako proba, horretarako deialdi bakarra eginez.

Oposizioko azterketak amaitu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, oposaketaren hiru ariketak batuta.

Lehiaketa aldia

Oposizio aldia gainditu duten hautagaiei, bost (5) egun balioduneko epea izango dute eskaera-orrian aipatu dituzten merituen egiaztagiria aurkezteko. Eskabide orriak aurkezteko azken eguna arteko merezimenduak besterik ez dira balioetsiko.

Bost eguneko epe horretan ez badira eskatutako agiriak aurkezten, hautagaiak uko egiten duela ulertuko da.

Izangaiak egiaztatu dituzten merituen aztertu eta baloratuko dira, jarraian azaltzen den baremoan ezarritakoaren arabera:

Lan esperientzia:

- Administrazio Publikoan ofizial lanpostuan (C2 azpialdean) egindako zerbitzuak: 0,5 puntu hileko (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira), 30 puntu gehienez.
- Enpresa pribatuan ofizial lanpostuan (8 kotizazio taldea) egindako zerbitzuak (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira): 0,25 puntu hileko, 8 puntu gehienez. Hilaren zatikiak proportzionalki ez dira baloratuko.

Lehiaketa fase honetan, gehienez ere, 30 puntu jasoko dira.

Zortzigarrena. — *Emaitzak argitaratzea*

1. Epaimahaiak proben emaitzaren zerrenda argitaratuko du, guztira lortutako puntuazioen batuketaren arabera ordenan, eta proba bakoitzean lortutako puntuak adieraziko dituzte, bai eta azken puntuazioa ere.

2. Froga bakoitzaren emaitzak argitaratu ostean, gutxienez 5 eguneko epea ezarriko da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

Bederatzigarrena. — *Gainditutako pertsonen zerrenda*

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko zerrenda argitaratuko du. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako puntuak batuz aterako da (oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioa batuta); eta puntuen arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera.



Berdinketarik badago, irizpide hauek izango dira kontuan hurrenkera-ordena ezartzeko:

1. Ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortu duenari.
2. Oposizioaldian puntuaziorik altuena lortu duenari.
3. Oinarri-arau berezietan zehaztutako merituetan puntuaziorik handiena lortu duenari, bertan adierazitako hurrenkerearen arabera.
4. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikularekin bat etorruta, gaitasun berbera duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago emakumeak direnean. Salbuespena izango da beste hautagai batzuek lanposturako neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizketarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
5. Oraindik berdinketa badago, hurrenkera-ordena zozketa bidez ezarriko da.

Hamargarrena. – Inpugnazioak

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozesura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Era berean, interesdunek deialdi honetatik eratorritako administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Prozesura Erkidearen araudiak ezarrita daukanaren arabera.



I. ERANSKINA

ZEREGIN ASKOTARIKO OFIZIALEN GAI ZERRENDA

GAI OROKORRAK

1. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Administrazio publikoen jarduteko irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua).
2. gaia: Laneko segurtasun eta osasun neurriak. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
 - a. Prebentzio Zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege dekretua. 1. artikulua. Prebentzio jardueren integrazioa.
 - b. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatutakoa.
 - i. 14. artikulua. Laneko arriskuen aurrean babesteko eskubidea.
 - ii. 15. artikulua. Prebentzio ekintzaren printzipioak.
 - iii. 17. artikulua. Lan ekipamenduak eta babes bitartekoak.
 - iv. 21. artikulua. Arrisku larria eta hurrekoa.

GAI ESPEZIFIKOAK

3. gaia: Igeltserotza. Erremintak eta materialak.
4. gaia: Sarrailagintza. Erremintak eta materialak.
5. gaia: Elektrizitatea. Erremintak eta materialak.
6. gaia: Iturgintza. Erremintak eta materialak.
7. gaia: Lorezaintza. Erabilitako materialak: ongariak eta makinak.
8. gaia: Pintura. Erabili beharreko materialak. Makinak.
9. gaia: Aritmetikari buruzko oinarrizko nozioak. Kalkulu-eragiketa nagusiak. Kopurua: kontzeptuak, motak eta oinarrizko eragiketak. Sistema metriko hamartarra.



II. ERANSKINA

GIDARIEN LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK**Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Bermeoko Udaleko gidari lan poltza eratzea lehiaketa-oposizio librearen bidez.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 10. Artikuluak xedatutakoa kontuan izanda, eta zerbitzuaren beharrianak aldi baterako edo bitartekotasunean betetzeko eratu da lan poltza hau.

Deialdi honen ondorioz sortutako lan poltza Bermeoko Udaleko funtzionario izateko hautaketa prozesutik sortutakoaren osagarria izango da. Bestalde, lan poltza honen eraketarekin, gainerako lan poltsak indargabetu egingo dira.

Lan poltza honek beste lan poltza bat osatu arterako indarraldia izango du.

Bigarrena. — Lanpostuaren ezaugarriak

Gidari lanpostuak, Administrazio Bereziko eskalan, Zerbitzu berezien azpi-eskalan, C2 sailkapen taldeari eta 11. Mailari dagozkion ordainsari-maila dauka.

Lanpostuaren bete beharreko funtzio nagusiak:

- Kaleak garbitu erratz mekanikoaren bidez. Ibilgailua gidatu esleitzen zaizkion kaletatik.
- Edukiontzia deskargatzen den bakoitzean makina garbitu.
- Makina eta erabilitako kamioien mantenuaz arduratu (nibelak konprobatu:olioa, bateria, ura, eskuilletako haginak aldatu, matxura txikiak konpondu...).
- Beharrezkoa bada, saileko beste kamioiak gidatu.
- Auzoetako kontenedorak batu.
- Sumideroen garbiketa eta kaleak egokitzea, produktu kimikoak erabiliz (herbicida).
- Kanean aurkitzen diren altzari, elektrogailu, etab. abandonatuak batu.
- Kamioaren matxura txikiak konpondu.
- Gorabeheren parte egin garbitasun arduradunari emateko.
- Bere karguko peoiei zuzendu eta lana koordinatu.
- Kamioaren matxura baten ondorioz, tailerrekin beharrezko jarraipena egin.
- Saileko beste edozein beribil gidatu.
- Pabiloia garbitu.
- Norberaren eta peoien lanari dagokion segurtasun neurriak hartu eta zaindu.
- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin bat datozen gainontzeko zereginak.

Hirugarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak

Hautagaiek betekizun guzti-guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitzen den egunean. Onartua izateko eta, horrela denean, hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezko betekizunak hauek dira:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaioen estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, gurasoen kontura bizi badira.



2. 16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.
3. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 6. Xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Derrigorezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloa, edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.
4. Deialdi honen xede den plazari lotutako lanpostuak betekizun espezifiko hau du: «C» gidabaimena.
5. Deitutako lanpostuak nahitaezko 1. Mailako hizkuntza-eskakizuna dauka. Baldintza hau, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu edo ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen Dekretuan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko 64/2008 Dekretua aldatzen duen 48/2009 Dekretuko 1. Artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da. Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuetsiko da.
6. Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.
20 eurokoak izango dira, agiriak emategatik ordaindu beharreko ordenantzak arautzen duen 2024ko Ordenantza fiskalaren arabera.
Hautaketa prozesuan izena ematean, tasa ordaintzeko beharrezana sortzen denez, erregistro orokorretik eskaria aurkezten den unean, tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontuan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da izangaia.
Behin hautagaiak izena eman eta tasa ordaintzen badu, nahiz eta deialdiaren baldintzak ez bete, ez zaio ordaindutako tasa itzuliko.
Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:
 - Ordainketa «Autokitapenak» ataletik egin behar da, Bermeoko Udaleko Egoitza elektronikoko lotura honetan:
Egoitza Elektronikoa (bermeokoudala.eus).
 - Txartelaz, arreta zuzeneko Berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.
 - Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
 - Banketxeetan.
7. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du baldintza hori betetzen dela, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.
8. Diziplina espediente bidez edozein administrazio publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetarako.

Oinarri hauetan zerrendatutako betekizun guzti horiek eskabideak aurkezteko azken egunean eduki beharko dira, eta hautaketa prozeduran mantendu.

Laugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eredu ofiziala Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan eskuratu daiteke.

Eskariarekin batera, Hizkuntza Eskakizunaren agiria eta oinarri hauetan eskatutako titulua aurkeztu behar dira.

Izangaiek merituak zerrendatu behar dituzte eskaera orrian. Baina eskaera orriarekin batera ez da aurkeztu behar merituak egiaztatzeko ziurtagiririk.



Eskariak aurkezteko bideak:

On-line: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>

— Egoitzatik egiteko asistentzia behar izatekotan, deitu 010 telefonora (946 179 100 Bermeotik kanpo deitezketan) hitzordu bidez Berhaz bulegoan laguntza eskaintzeko.

— Modu elektronikoa egitera behartuta ez dauden interesdunen kasuan:

Aurrez – Aurrekoa: Berhaz Bulegoan.

Ertzilla 6-8 Bermeo.

Ordutegia:

8:00-15:00: Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

8:00 -14:00 eta 16:00-18:00: Astearte eta ostegunetan.

— Udan Goizez bakarrik.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiria eta izena emateko eskatzen diren beste agiriekin batera, hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen kontrol edo azterketak egiteko.

Prozesuaren amaieran, gidarien lan poltsa eratu da. Hori dela eta, izangaiek, eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzearen aurka dauden: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada, hautagaiak baimena ematen duela ulertuko da.

Bosgarrena. — Izangaia onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udalaren iragarki oholean eta webgunean ipiniko da. Modu berean, 10 egun balioduneko epean, izangaiek egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluan adierazitakoaren arabera.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta erakundearen iragarki-oholean eta webgunean ipiniko da. Behin-behineko zerrenda behin-betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada, zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko bada ere.

Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke, hilabete bateko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea hauen arabera eratu da: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022



Legearen 81 eta 189 artikulua; Administrazioaren zerbitzupeko langileen sarrerari buruzko Araudi Nagusia onartu zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua.

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren arabera kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

Botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprotetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute. Modu berean, epaimahaiaren eraketari dagokionez, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 1/2022 Legearen 21. Artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu. Epaimahaiaren erabakian aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan eta webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Epaimahaiakideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

Epaimahaiak izango dituen titular eta ordezkien izen-deiturak jakinaraziko dira. Epaimahaiakideak ezetzi egin daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. Artikuluan aurreikusitakoa gertatzen bada.

Eratzeko ekitaldian, hautaketa-prozesua behar moduan garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu epaimahaiak. Baliozko eran jarduteko, kideen gehiengoa, titularrak edo ordezkoak, bertaratu beharko dira, eta beraien artean nahitaez izan beharko dira epaimahaiburua eta idazkaria. Epaimahaiak argituko ditu arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak. Horrez gain, aurreikusi ez diren kasuetan zer egin behar den erabakiko du. Epaimahaiak, jakinarazpenak egiteko eta gertakarien berri emateko, Bermeoko Udalean izango du egoitza.

Epaimahaiaren jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokituko zaio une guztietan. Epaimahaiko kide guztiak hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; hark hitza izango du baina botorik ez. Botoen gehiengoarekin hartuko dira epaimahaiaren erabakiak. Berdinketarik egonez gero, epai mahaiburuaren botoak ebartziko du.

Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua.

Hautaketa prozesuaren lehen aldia oposizioa izango da.

Oposizio aldia

Oposizio-fasean gehienez ere 70 puntu lortu ahalko dira.

Oposizio-faseak hiru ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko du, gutxienez, Bermeoko Udaleko webgunean eta iragarki taulan.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprotetik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengorik egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahai kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituen izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Ariketak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

Epaimahai kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo epaimahai kalifika-



tzaileak identifikatzeko egokitzen jotzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzeritarren Nortasun Zenbakia...).

Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxieneko epea 72 ordukoa izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio.

Ariketa bakoitzaren ostean epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazioak aurkezteko. Edonola ere, kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatutako epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko dira, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

Epaimahaiak proba bakoitzerako oposizio gile bakoitzaren anonimatua eta konfidentzialtasuna bermatzeko metodorik egokiena zein den baloratuko du, eta metodo hori aplikatzeko neurriak hartuko ditu, bai proba egiterakoan, bai zuzentzerakoan.

Lehen ariketa: Ezagutza teorikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

I. eranskinen gai zerrendarekin lotutako test-erako galdera-sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun anizkoitzekin, eta horietako bat zuzena izango da. Epaimahaiaren irizpidearen arabera geratuko da galdera-kopurua finkatzea, probaren iraupena eta abar.

Ariketa hau 0tik 20ra bitartean baloratuko da. Gutxienez 10 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Zuzenak ez diren erantzunak hiruren bat kenduko diete erantzun zuzenei.

Bigarren ariketa: Ezagutza praktikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila

Ariketa praktikoa. Izangaiek lanpostuen zereginekin lotutako ariketa praktikoa bat edo gehiago egin beharko dituzte.

Ariketa hau 0tik 50 puntura bitartean baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Hirugarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila izangai guztientzat

Deialdiko lanpostuari 1. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio; beraz, euskararen hizkuntza eskakizun hori eduki behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Euskararen ezagutza maila euskarako proba gaitututa egiaztatuko da, eta proba hori gai edo ez gai joko da.

Nolanahi ere, euskarako proba egiten den aurreko egunera arte, izangaiek aipatutako hizkuntza eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ofizios kontsultatuko ditu izangaiek alegatutako hizkuntza-eskakizunak. Honako baldintzaren bat bete beharko da laugarren ariketa egitetik salbuesteko:

- 1. hizkuntza eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetzeko titulua edo egiaztapen bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, xedatutakoari jarraituz (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratutako mailekin parekidezteko dena).
- Kasuan kasuko baliokidetzak eskuratua izatea, hain zuzen ere euskaraz egindako ikasketak ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren indarrez.

Edonola ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidetzako ziurtagirien edota tituluen lortze data, nahiz azterketa egin beharrik ez izatea dakarten ikasketen onarpenaren lortze data euskarako probari dagokion lehen ariketa egin aurrekoa izango da.



1. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria ez dutenen kasuan, prozesuaren beste fase bat izango da hori egiaztatzeko probak egitea. Epaimahai Kalifikatzaileak aditzera eman-
du hautaketa-prozesuko zein unetan egingo den euskarako proba, horretarako deial-
di bakarra eginez.

Oposizioko azterketak amaitu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera eza-
rriko du, puntuazioaren arabera, oposaketaren hiru ariketak batuta.

Lehiaketa aldia

Oposizio aldia gainditu duten hautagaiei, bost (5) egun balioduneko epea izango dute
eskaera-orrian aipatu dituzten merituen egiaztagiria aurkezteko. Eskabide orriak aur-
kezteko azken eguna arteko merezimenduak besterik ez dira balioetsiko.

Bost eguneko epe horretan ez badira eskatutako agiriak aurkezten, hautagaiak uko
egiten duela ulertuko da.

Izangaiek egiaztatu dituzten meritua aztertu eta baloratuko dira, jarraian azaltzen
den baremoan ezarritakoaren arabera:

Lan esperientzia:

- Administrazio Publikoan gidari lanpostuan (C2 azpitaldean) egindako zerbitzuak:
0.5 puntu hileko (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira), 30
puntu gehienez.
- Enpresa pribatuan gidari lanpostuan (8 kotizazio taldea) egindako zerbitzuak
(%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira): 0,25 puntu hileko, 8
puntu gehienez. Hilaren zatikiak proportzionalki ez dira baloratuko.

Lehiaketa fase honetan, gehienez ere, 30 puntu jasoko dira.

Zortzigarrena. – *Emaitzak argitaratzea*

Epaimahaiak proben emaitzaren zerrenda argitaratuko du, guztira lortutako puntu-
azioen batuketaren arabeko ordenan, eta proba bakoitzean lortutako puntuak adierazi-
ko dituzte, bai eta azken puntuazioa ere.

Froga bakoitzaren emaitzak argitaratu ostean, gutxienez 5 eguneko epea ezarriko da
azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari
aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren
aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

Bederatzigarrena. – *Gainditutako pertsonen zerrenda*

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko zerren-
da argitaratuko du. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako pun-
tuak batuz aterako da (oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioa batuta);
eta puntuen arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera.

Berdinketarik badago, irizpide hauek izango dira kontuan hurrenkera-ordena ezar-
tzeko:

1. Ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortu duenari.
2. Oposizio aldian puntuaziorik altuena lortu duenari.
3. Oinarri-arau berezietan zehaztutako merituetan puntuaziorik handiena lortu due-
nari, bertan adierazitako hurrenkeraren arabera.
4. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsai-
laren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikularekin bat etorruta, gaitasun berbe-
ra duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien
%40 baino gutxiago emakumeak direnean. Salbuespena izango da beste hauta-
gai batzuek lanposturako neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak
dituztenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko
bereizketarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak
dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
5. Oraindik berdinketa badago, hurrenkera-ordena zozketa bidez ezarriko da.



Hamargarrena. — Inpugnazioak

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozesura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Era berean, interesdunek deialdi honetatik eratorritako administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Prozesura Erkidearen araudiak ezarrita daukanaren arabera.



I. ERANSKINA GIDARIEN GAI ZERREDA

GAI OROKORRAK

1. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Administrazio publikoen jarduteko irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua).
2. gaia: Laneko segurtasun eta osasun neurriak. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
 - a. Prebentzio Zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege dekretua. 1. artikulua. Prebentzio jardueren integrazioa.
 - b. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatutakoa.
 - i. 14. artikulua. Laneko arriskuen aurrean babesteko eskubidea.
 - ii. 15. artikulua. Prebentzio ekintzaren printzipioak.
 - iii. 17. artikulua. Lan ekipamenduak eta babes bitartekoak.
 - iv. 21. artikulua. Arrisku larria eta hurrekoa.

GAI ESPEZIFIKOAK

3. gaia: Portaera arauak zirkulazioan. Arau orokorrak. Ibilgailuak zamatzea eta pertsonak eta merkatu gaiak garraiatzea. Gidarien arau orokorrak.
4. gaia: Ibilgailuaren motorra. Gasolinazko motorra. Diesel motorra. Motorren eta ekipamenduaren lantegia.
5. gaia: Motorren osagaiak, lubrikazioa eta hoztea. Banaketa-, lubrikazio- eta hozte-sistemak
6. gaia: Transmisio-sistemak. Enbragea. Olio zuzeneko disko anitzeko enbragea. Marruskadura-enbragea mantentzea. Pare-bihurgailua. Abiadura-kaxa. Transmisio-ardura eta erdiarbolak
7. gaia: Automobilaren ekipo elektrikoa. Zirkuituak eta argiztapen-sistemak. Seinalizatzen eta maniobra-zirkuituak. Zirkuitu elektrikoetan matxurak aurkitzea.



III. ERANSKINA

UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAILEEN LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Lehenengoa. — *Deialdiaren xedea*

Deialdi honen xedea da Bermeoko Udaleko udal eraikinetako garbitzaile lan poltza eratzea lehiaketa-oposizio librearen bidez.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 10. Artikuluak xedatutakoa kontuan izanda, eta zerbitzuaren beharrianak aldi baterako edo bitartekotasunean betetzeko eratu-ko da lan poltza hau.

Deialdi honen ondorioz sortutako lan poltza Bermeoko Udaleko funtzionario izateko hautaketa prozesutik sortutakoaren osagarria izango da. Bestalde, lan poltza honen eraketarekin, gainerako lan poltsak indargabetu egingo dira.

Lan poltza honek beste lan poltza bat osatu arterako indarraldia izango du.

Bigarrena. — *Lanpostuaren ezaugarriak*

Udal eraikinetako garbitzaile lanpostuak, Administrazio Bereziko eskalan, Zerbitzu berezien azpi-eskalan, LT sailkapen taldeari eta 8. Mailari dagozkion ordainsari-maila dauka.

Lanpostuaren bete beharreko funtzio nagusiak:

- Oro har, eraikinean dauden gela, pasillo, eskailera, bulego, igogailu... guztiak garbitu, eta kanpoan daudenak ere bai (patioak, terrazak, adokin gunea, eskailerak, erranpak...).
- Zakarrontziak hustu, hautsonziak garbitu eta jasotako zakar guztia poltsetan sartu eta bakoitza behar den lekuan jarri (plastikoa, papera...).
- Altzariei, lanparei, hormei eta objektu guztiei hautsa kendu eta distiratsu utzi.
- Aspiragailua eta ezkoztatzeko makina erabili.
- Egurra tratatzeko produktuak erabili beharrezkoa denean, lurretan, ateetan zein altzarietan.
- Aldizka eta arduradunak agintzen duen bakoitzean, garbiketa sakonagoa egin.
- Akatsak ikusten badira, dagokion abisua eman.
- Norberaren lanari dagokion segurtasun neurriak hartu eta zaindu.
- Dagokion alarmak konprobatu.
- Azoka zabaldu eta itxi.
- Zoru garbigailua erabili.
- Gerta daitezkeen matxuren berri eman arduradunari.
- Bere kategoriari dagozkion eta agintzen zaizkion gainontzeko eginbeharreak.

Hirugarrena. — *Izangaiek bete beharreko baldintzak*

Hautagaiek betekizun guzti-guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitzen den egunean. Onartua izateko eta, horrela denean, hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezko betekizunak hauek dira:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuotako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaioen estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuotako herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, gurasoen kontura bizi badira.



2. 16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.
3. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 6. Xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako eskola egiaztagiria edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.
4. Deitutako lanpostuak nahitaezko 1. Mailako hizkuntza-eskakizuna dauka. Baldintza hau, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu edo ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen Dekretuan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko 64/2008 Dekretua aldatzen duen 48/2009 Dekretuko 1. Artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da. Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskera-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuetsiko da.
5. Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.
6. 20 eurokoak izango dira, Agiriak emateagaitik ordaindu beharreko ordenantzak arautzen dauen 2024ko Ordenantza fiskalaren arabera.

Hautaketa prozesuan izena ematean, tasa ordaintzeko beharrezana sortzen denez, erregistro orokorretik eskaria aurkezten den unean, tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontuan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da izangaia.

Behin hautagaiak izena eman eta tasa ordaintzen badu, nahiz eta deialdiaren baldintzak ez bete, ez zaio ordaindutako tasa itzuliko.

Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:

— Ordainketa «Autokitapenak» ataletik egin behar da, Bermeoko Udaleko Egoitza elektronikoko lotura honetan:

Egoitza Elektronikoa (bermeokoudala.eus).

— Txartelaz, arreta zuzeneko Berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.

— Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.

— Banketxeetan.

7. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du baldintza hori betetzen dela, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.
8. Diziplina espediente bidez edozein administrazio publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetarako.

Oinarri hauetan zerrendatutako betekizun guzti horiek eskabideak aurkezteko azken egunean eduki beharko dira, eta hautaketa prozeduran mantendu.

Laugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eredu ofiziala Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoa edo Berhaz bulegoan eskuratu daiteke.

Eskariarekin batera, Hizkuntza Eskakizunaren agiria eta oinarri hauetan eskatutako titulua aurkeztu behar dira.

Izangaiek merituak zerrendatu behar dituzte eskaera orrian. Baina eskaera orriarekin batera ez dute aurkeztu behar meritu horiek egiaztatzeko ziurtagiririk.

Eskariak aurkezteko bideak:

On-line: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>



- Egoitzatik egiteko asistentzia behar izatekotan, deitu 010 telefonora (946 179 100 Bermeotik kanpo deitezekotan) hitzordu bidez Berhaz bulegoan laguntza eskaintzeko.
- Modu elektronikoa egitera behartuta ez dauden interesdunen kasuan:
 - Aurrez – Aurrekoa: Berhaz Bulegoan.
 - Ertzilla 6-8 Bermeo.
 - Ordutegia:
 - 8:00-15:00: Astelehen, asteazken eta ostiraletan.
 - 8:00 -14:00 eta 16:00-18:00: Astearte eta ostegunetan.
- Udan Goizez bakarrik.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiria eta izena emateko eskatzen diren beste agiriekin batera, hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen di-tuen kontrol edo azterketak egiteko.

Prozesuaren amaieran, udal eraikinetako garbitzaileen lan poltsa eratu da. Hori dela eta, izangaiek, eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publiko beste erakunde batzuei lagatzearen aurka dauden: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada, hautagaiak baimena ematen duela ulertuko da.

Bosgarrena. — Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidenteak deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda on-tzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udalaren iragarki oholean eta webgunean ipiniko da. Modu berean, 10 egun balioduneko epean, izangaiek egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Adminis-trazio Prozesura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluan adierazita-koaren arabera.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporezioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako izangaiei behin-betiko zerrenda on-tzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta erakundearen iragarki-oholean eta webgunean ipiniko da. Behin behineko zerrenda behin betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada, zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko bada ere.

Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke, hilabete bateko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea hauen arabera eratu da: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 81 eta 189 artikulak; Administrazioaren zerbitzueko langileen sarrerari buruzko Araudi Nagusia onartu zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua.



Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren arabera kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

Botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute. Modu berean, epaimahaiaren eraketari dagokionez, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 1/2022 Legearen 21. Artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebaztuko ditu. Epaimahaiaren erabakian aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan eta webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Epaimahaikideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

Epaimahaiak izango dituen titular eta ordezkoen izen-deiturak jakinaraziko dira. Epaimahaikideak ezetzi egin daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. Artikuluan aurreikusitakoa gertatzen bada.

Eratzeko ekitaldian, hautaketa-prozesua behar moduan garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu epaimahaiak. Baliozko eran jarduteko, kideen gehiengoa, titularrak edo ordezkoak, bertaratu beharko dira, eta beraien artean nahitaez izan beharko dira epaimahaiburua eta idazkaria. Epaimahaiak argituko ditu arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak. Horrez gain, aurreikusi ez diren kasuetan zer egin behar den erabakiko du. Epaimahaiak, jakinarazpenak egiteko eta gertakarien berri emateko, Bermeoko Udalean izango du egoitza.

Epaimahaiaren jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokituko zaio une guztietan. Epaimahaiko kide guztiak hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; hark hitza izango du baina botorik ez. Botoen gehiengoarekin hartuko dira epaimahaiaren erabakiak. Berdinketarik egonez gero, epai mahaiburuaren botoak ebaztuko du.

Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua.

Hautaketa prozesuaren lehen aldia oposizioa izango da.

Oposizio aldia

Oposizio-fasean gehienez ere 70 puntu lortu ahalko dira.

Oposizio-faseak hiru ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko du, gutxienez, Bermeoko Udaleko webgunean eta iragarki taulan.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengorik egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta Epaimahai Kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituen izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Ariketak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo Epaimahai Kalifikatzaileak identifikatzeko egokitutako jotzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzeritarren Nortasun Zenbakia...).



Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxieneko epea 72 ordukoa izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio.

Ariketa bakoitzaren ostean epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin-behinekoko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazioak aurkezteko. Edonola ere, kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatutako epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko dira, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

Epaimahaiak proba bakoitzerako oposiziogile bakoitzaren anonimatua eta konfidentzialtasuna bermatzeko metodorik egokiena zein den baloratuko du, eta metodo hori aplikatzeko neurriak hartuko ditu, bai proba egiterakoan, bai zuzentzerakoan.

Lehen ariketa: Ezagutza teorikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila

I. eranskineko gai zerrendarekin lotutako test-erako galdera-sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun anizkoitzekin, eta horietako bat zuzena izango da. Epaimahaiaren irizpidearen arabera geratuko da galdera-kopurua finkatzea, probaren iraupena eta abar.

Ariketa hau 0tik 20ra bitartean baloratuko da. Gutxienez 10 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Zuzenak ez diren erantzunak hiruren bat kenduko diete erantzun zuzenei.

Bigarren ariketa: Ezagutza praktikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila

Ariketa praktikoa. Izangaiek lanpostuen zereginekin lotutako ariketa praktikoa bat edo gehiago egin beharko dituzte.

Ariketa hau 0tik 50 puntura bitartean baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Hirugarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila izangai guztientzat

Deialdiko lanpostuari 1. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio; beraz, euskararen hizkuntza eskakizun hori eduki behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Euskararen ezagutza maila euskarako proba gairatuta egiaztatuko da, eta proba hori gai edo ez gai joko da.

Nolanahi ere, euskarako proba egiten den aurreko egunera arte, izangaiek aipatu hizkuntza eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziuertagiriaren Erregistro Bateratuan ofizioz kontsultatuko ditu izangaiek alegatutako hizkuntza-eskakizunak. Honako baldintzaren bat bete beharko da laugarren ariketa egiteko salbuesteko:

- 1. hizkuntza eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetuak titulua edo egiaztapen bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, xedatutakoari jarraituz (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziuertagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekidetzeko dena).
- Kasuan kasuko baliokidetzak eskuratua izatea, hain zuzen ere euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziuertagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren indarrez.

Edonola ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidetuak ziuertagiriaren edota tituluen lortze data, nahiz azterketa egin beharrik ez izatea dakarten ikasketen onarpenaren lortze data euskarako probari dagokion lehen ariketa egin aurrekoa izango da.

1. hizkuntza eskakizunaren ziuertapena ez dutenen kasuan, prozesuaren beste fase bat izango da hori egiaztatzeko probak egitea. Epaimahai Kalifikatzaileak aditzera eman-



go du hautaketa-prozesuko zein unetan egingo den euskarako proba, horretarako deialdi bakarra eginez.

Oposizioko azterketak amaitu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, oposaketaren hiru ariketak batuta.

Lehiaketa aldia

Oposizio aldia gainditu duten hautagaiei, bost (5) egun balioduneko epea izango dute eskaera-orrain aipatu dituzten merituen egiaztagiriak aurkezteko. Eskabide orriak aurkezteko azken eguna arteko merezimenduak besterik ez dira balioetsiko.

Bost eguneko epe horretan ez badira eskatutako agiriak aurkezten, hautagaiak uko egiten duela ulertuko da.

Izangaiek egiaztatu dituzten merituak aztertu eta baloratuko dira, jarraian azaltzen den baremoan ezarritakoaren arabera:

Lan esperientzia:

- Administrazio Publikoan garbitzaile lanpostuan (LT azpitaldean) egindako zerbitzuak: 0,5 puntu hileko (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira), 30 puntu gehienez.
- Enpresa pribatuan garbitzaile lanpostuan (10 kotizazio taldea) egindako zerbitzuak (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira): 0,25 puntu hileko, 8 puntu gehienez. Hilaren zatikiak proportzionalki ez dira baloratuko.

Lehiaketa fase honetan, gehienez ere, 30 puntu jasoko dira.

Zortzigarrena. – *Emaitzak argitaratzea*

1. Epaimahaiak proben emaitzaren zerrenda argitaratuko du, guztira lortutako puntuazioen batuketaren arabera ordenan, eta proba bakoitzean lortutako puntuak adieraziko dituzte, bai eta azken puntuazioa ere.

2. Froga bakoitzaren emaitzak argitaratu ostean, gutxienez 5 eguneko epea ezarriko da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

Bederatzigarrena. – *Gainditutako pertsonen zerrenda*

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko zerrenda argitaratuko du. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako puntuak batuz aterako da (oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioa batuta); eta puntuen arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera.

Berdinketarik badago, irizpide hauek izango dira kontuan hurrenkera-ordena ezartzeko:

1. Ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortu duenari.
2. Oposizio aldiaren puntuaziorik altuena lortu duenari.
3. Oinarri-arau berezietan zehaztutako merituetan puntuaziorik handiena lortu duenari, bertan adierazitako hurrenkeraren arabera.
4. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikularekin bat etorrira, gaitasun berbera duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago emakumeak direnean. Salbuespena izango da beste hautagai batzuek lanposturako neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizketarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
5. Oraindik berdinketa badago, hurrenkera-ordena zozketa bidez ezarriko da.



Hamargarrena. — Inpugnazioak

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozesura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Era berean, interesdunek deialdi honetatik eratorritako administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Prozesura Erkidearen araudiak ezarrita daukanaren arabera.



I. ERANSKINA

ERAIKINETAKO GARBITZAILEEN GAI ZERREDA.

GAITEGI OROKORRA

1. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Administrazio publikoen jarduteko irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua).
2. gaia: Laneko segurtasun eta osasun neurriak. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
 - a. Prebentzio Zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege dekretua. 1. artikulua. Prebentzio jardueren integrazioa.
 - b. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatutakoa.
 - i. 14. artikulua. Laneko arriskuen aurrean babesteko eskubidea.
 - ii. 15. artikulua. Prebentzio ekintzaren printzipioak.
 - iii. 17. artikulua. Lan ekipamenduak eta babes bitartekoak.
 - iv. 21. artikulua. Arrisku larria eta hurrekoa.

GAITEGI ESPEZIFIKOA

3. gaia: Garbiketa-zerbitzua antolatzea eta kontrolatzea. Lantaldeak. Garbiketako langileen eginkizunak.
4. gaia: Detergenteak. Produktuen etiketetan agertzen diren sinboloen esanahia. Agente kimikoak: definizioak eta prebentzioa.
5. gaia: Bainugela garbitzea. Desinfekzioa eta girotzea.
6. gaia: Leihoak eta kristalak garbitzea. Sabaiak eta hormak garbitzea. Zoruak garbitzea. Ikastrak publikoak garbitzea.
7. gaia: Altzariak garbitzea. Garbiketa teknikak.
8. gaia: Garbiketaren alderdi ekologikoa. Birziklatzea.



IV. ERANSKINA

**ZEREGIN ASKOTARIKO PEOIEN LAN POLTSA ERATZEKO
DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Bermeoko Udaleko zeregin askotarako peaien lan poltsa eratzea lehiaketa-oposizio librearen bidez.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 10. Artikuluak xedatutakoa kontuan izanda, eta zerbitzuaren beharrianak aldi baterako edo bitartekotasunean betetzeko eratu-ko da lan poltsa hau.

Deialdi honen ondorioz sortutako lan poltsa Bermeoko Udaleko funtzionario izateko hautaketa prozesutik sortutakoaren osagarria izango da. Bestalde, lan poltsa honen eraketarekin, gainerako lan poltsak indargabetu egingo dira.

Lan poltsa honek beste lan poltsa bat osatu arterako indarraldia izango du.

Bigarrena. — Lanpostuaren ezaugarriak

Zeregin askotarako peoi lanpostuak, Administrazio Bereziko eskalan, Zerbitzu berezien azpi-ekalan, LT sailkapen taldeari eta 8. Mailari dagozkion ordainsari-maila dauka.

Lanpostuaren bete beharreko funtzio nagusiak:

- Paperontziak hustu eta garbitu, beharrezkoa denean eta dagokion kontenedoreen hondakinak batu.
- Zakarrak jaso eta dagokion gurditxoaren bidez, eta edukiontzietara bota.
- Merkatu txikiko garbiketa.
- Erratz makinako gidariari laguntza eman, makina heltzen ez den zakarra gerturazten, makina beraren mantenimenduan, eskuilak aldatzen, kargatzen eta deskargatzen, garbitzen etab.
- Sumideroak garbitu.
- Erratzaren bidez kaleak, enparantzak eta bideak garbitu eta bertan dauden zakar guztiak jaso.
- Lorazain ofizialaren ardurapean, lorategian eta oro har, udalaren arduraren menpe dauden gunen berdeen mantenimendua eta zaintza.
- Aurkitzen diren matxuren berri eman arduradunari.
- Ureztatze sareak jarri eta daudenak konpondu.
- Furgoneta, dunperrak, zaztar batzeko kamioi txikia... gidatu.
- Bere lanerako beharrezkoak diren produktu arriskutsuak erabili.
- Hodiak zabaldu eta itxi, murrak eta trunkadak bota eta altxatu beharrezkoak denean. Orea egin, materialak kargatu eta deskargatu kale eta espaloiak beheratu, herri-altzarien eta trafikoko seinaleen kontserbazioa eta mantenimenduko lanak egin, saneamenduko lanak egin, materialak leku batetik bestera eramanean, kultura eta ekintzetarako instalazioak muntatu, eta bere lana egin ahal izateko baliabide mekanikoak erabili.
- Desbrozeak egin.
- Arratoiak hiltzeko benenoa banandu agindutako lekuetan.
- Dagokion tokian dauden zakar poltsak batu eta kamioian kargatu.
- Kontenedorak batu, garbitu eta defektuak konpondu.
- Norberaren lanari dagokion segurtasun neurriak hartu eta zaindu.
- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin zerikusia duten gainontzeko egin-beharrak.

**Hirugarrena. — Izangaiak bete beharreko baldintzak**

Hautagaiak betekizun guzti-guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitzen den egunean. Onartua izateko eta, horrela denean, hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezko betekizunak hauek dira:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaioen estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, gurasoen kontura bizi badira.
2. 16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.
3. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 6. Xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako eskola egiaztagiria edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.
4. Gida baimena izatea (B).
5. Deitutako lanpostuak nahitaezko 1. Mailako hizkuntza-eskakizuna dauka. Baldintza hau, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatzen dituen Dekretuan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko 64/2008 Dekretua aldatzen duen 48/2009 Dekretuko 1. Artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da. Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskera-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuetsiko da.
6. Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.
20 eurokoak izango dira, Agiriak emategatik ordaindu beharreko ordenantzak arautzen duen 2024ko ordenantza fiskalaren arabera.
Hautaketa prozesuan izena ematean, tasa ordaintzeko beharrezkoak sortzen denez, erregistro orokorretik eskaria aurkeztu den unean, tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontuan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da izangaia.
Behin hautagaiak izena eman eta tasa ordaintzen badu, nahiz eta deialdiaren baldintzak ez bete, ez zaio ordaindutako tasa itzuliko.
Tasa horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:
 - Ordainketa «Autokitapenak» ataletik egin behar da, Bermeoko Udaleko Egoitza elektronikoko lotura honetan:
Egoitza Elektronikoa (bermeokoudala.eus).
 - Txartelaz, arreta zuzeneko Berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.
 - Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
 - Banketxeetan.
7. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du baldintza hori betetzen dela, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.



8. Diziplina espediente bidez edozein administrazio publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetarako.

Oinarri hauetan zerrendatutako betekizun guzti horiek eskabideak aurkezteko azken egunean eduki beharko dira, eta hautaketa prozeduran mantendu.

Laugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eredu ofiziala Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan eskuratu daiteke.

Eskariarekin batera, Hizkuntza Eskakizunaren agiria eta oinarri hauetan eskatutako titulua aurkeztu behar dira.

Izangaiek merituak zerrendatu behar dituzte eskaera orrian. Baina eskaera orriarekin batera ez da aurkeztu behar meritu horiek egiaztatzeko ziurtagiririk.

Eskariak aurkezteko bideak:

On-line: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>

— Egoitzatik egiteko asistentzia behar izatekotan, deitu 010 telefonora (946 179 100 Bermeotik kanpo deitezkotan) hitzordu bidez Berhaz bulegoan laguntza eskaintzeko.

— Modu elektronikoan egitera behartuta ez dauden interesdunen kasuan:

Aurrez – Aurrekoa: Berhaz Bulegoan.

Ertzilla 6-8 Bermeo.

Ordutegia:

8:00-15:00: Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

8:00 -14:00 eta 16:00-18:00: Astearte eta ostegunetan.

— Udan Goizez bakarrik.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiria eta izena emateko eskatzen diren beste agiriekin batera, hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko personal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen kontrol edo azterketak egiteko.

Prozesuaren amaieran, zeregin askotarako peoien lan poltsa eratuko da. Hori dela eta, izangaiek, eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzearen aurka dauden: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada, hautagaiak baimena ematen duela ulertuko da.

Bosgarrena. — Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udalaren iragarki oholean eta webgunean ipiniko da. Modu berean, 10 egun balioduneko epean, izangaiek egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluan adierazitakoaren arabera.



Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporazioko presidentek deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta erakundearen iragarki-oholean eta webgunean ipiniko da. Behin behineko zerrenda behin betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada, zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko bada ere.

Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua jar daiteke, hilabete bateko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea hauen arabera eratu da: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 81 eta 189 artikulua; Administrazioaren zerbitzupeko langileen sarrerari buruzko Araudi Nagusia onartu zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua.

Epaimahai mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren arabera kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

Botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprotetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute. Modu berean, epaimahaiaren eraketari dagokionez, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 1/2022 Legearen 21. Artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu. Epaimahaiaren erabakian aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan eta webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Epaimahaiakideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

Epaimahaiak izango dituen titular eta ordezkoen izen-deiturak jakinaraziko dira. Epaimahaiakideak eztegi egin daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. Artikuluan aurreikusitakoa gertatzen bada.

Eratzeko ekitaldian, hautaketa-prozesua behar moduan garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu epaimahaiak. Baliozko eran jarduteko, kideen gehiengoak, titularrak edo ordezkioak, bertaratu behar dira, eta beraien artean nahitaez izan behar dira epaimahaiburu eta idazkaria. Epaimahaiak argituko ditu arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak. Horrez gain, aurreikusi ez diren kasuetan zer egin behar den erabakiko du. Epaimahaiak, jakinarazpenak egiteko eta gertakarien berri emateko, Bermeoko Udalean izango du egoitza.

Epaimahaiaren jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokituko zaio une guztietan. Epaimahaiak kide guztiak hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; hark hitza izango du baina botorik ez. Botoen gehiengoarekin hartuko dira epaimahaiaren erabakiak. Berdinketarik egonez gero, epai mahaiburuaren botoak ebatziko du.

Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua.

Hautaketa prozesuaren lehen aldia oposizioa izango da.

Oposizio aldia

Oposizio-fasean gehienez ere 70 puntu lortu ahalko dira.



Oposizio-faseak hiru ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailerak izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko du, gutxienez, Bermeoko Udaleko webgunean eta iragarki taulan.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengorik egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta Epaimahai Kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituen izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Ariketak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo Epaimahai Kalifikatzaileak identifikatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzeritarren Nortasun Zenbakia...).

Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxieneko epea 72 ordukoa izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio.

Ariketa bakoitzaren ostean epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazioak aurkezteko. Edonola ere, kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatutako epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko dira, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez baliatzen, behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, epaimahai kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

Epaimahaiak proba bakoitzerako oposiziogile bakoitzaren anonimatua eta konfidentzialtasuna bermatzeko metodorik egokiena zein den baloratuko du, eta metodo hori aplikatzeko neurriak hartuko ditu, bai proba egiterakoan, bai zuzentzerakoan.

Lehen ariketa: Ezagutza teorikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzailerak

I. eranskineko gai zerrendarekin lotutako test-erako galdera-sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun anizkoitzekin, eta horietako bat zuzena izango da. Epaimahaiaren irizpidearen arabera geratuko da galdera-kopurua finkatzea, probaren iraupena eta abar.

Ariketa hau 0tik 20ra bitartean baloratuko da. Gutxienez 10 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Zuzenak ez diren erantzunak hiruren bat kenduko diete erantzun zuzenei.

Bigarren ariketa: Ezagutza praktikoen proba. Nahitaezkoa eta baztertzailerak

Ariketa praktikoa. Izangaiek lanpostuen zereginekin lotutako ariketa praktikoa bat edo gehiago egin beharko dituzte.

Ariketa hau 0tik 50 puntura bitartean baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Hirugarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzailerak

Deialdiko lanpostuari 1. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio; beraz, euskararen hizkuntza eskakizun hori eduki behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Euskararen ezagutza maila euskarako proba gaindituta egiaztatuko da, eta proba hori gai edo ez gai joko da.

Nolanahi ere, euskarako proba egiten den aurreko egunera arte, izangaiek aipatutako hizkuntza eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ofizioz kontsul-



tatuko ditu izangaiak alegatutako hizkuntza-eskakizunak. Honako baldintzaren bat bete beharko da laugarren ariketa egitetik salbuesteko:

- 1. hizkuntza eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetutako titulu edo egiaztagiri bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, xedatutakoari jarraituz (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekidezteko dena).
- Kasuan kasuko baliokidetza eskuratua izatea, hain zuen ere euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren indarrez.

Edonola ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidetutako ziurtagirien edota tituluen lortze data, nahiz azterketa egin beharrik ez izatea dakarten ikasketen onarpenaren lortze data euskarako probari dagokion lehen ariketa egin aurrekoa izango da.

1. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria ez dutenen kasuan, prozesuaren beste fase bat izango da hori egiaztatzeko probak egitea. Epaimahai Kalifikatzaileak aditzera eman go du hautaketa-prozesuko zein unetan egingo den euskarako proba, horretarako deialdi bakarra eginez.

Oposizioko azterketak amaitu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, oposaketaren hiru ariketak batuta.

Lehiaketa aldia

Oposizio aldia gainditu duten hautagaiei, bost (5) egun balioduneko epea izango dute eskaera-orrian aipatu dituzten merituen egiaztagiria aurkezteko. Eskabide orriak aurkezteko azken eguna arteko merezimenduak besterik ez dira balioetsiko.

Bost eguneko epe horretan ez badira eskatutako agiriak aurkezten, hautagaiak uko egiten duela ulertuko da.

Izangaiak egiaztatu dituzten merituen aztertu eta baloratuko dira, jarraian azaltzen den baremoan ezarritakoaren arabera:

Lan esperientzia:

- Administrazio Publikoan peoi lanpostuan (LT azpitaldean) egindako zerbitzuak: 0,5 puntu hileko (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira), 30 puntu gehienez.
- Enpresa pribatuan zeregin askotarako peoi lanpostuan (10 kotizazio taldea) egindako zerbitzuak (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira): 0,25 puntu hileko, 8 puntu gehienez. Hilaren zatikiak proportzionalki ez dira baloratuko.

Lehiaketa fase honetan, gehienez ere, 30 puntu jasoko dira.

Zortzigarrena.— *Emaitzak argitaratzea*

Epaimahaiak proben emaitzaren zerrenda argitaratuko du, guztira lortutako puntuazioen batuketaren araberrako ordenan, eta proba bakoitzean lortutako puntuak adieraziko dituzte, bai eta azken puntuazioa ere.

Froga bakoitzaren emaitzak argitaratu ostean, gutxienez 5 eguneko epea ezarriko da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

Bederatzigarrena.— *Gainditutako pertsonen zerrenda*

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko zerrenda argitaratuko du. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako puntuak batuz aterako da (oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioa batuta); eta puntuen arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera.



Berdinketarik badago, irizpide hauek izango dira kontuan hurrenkera-ordena ezartzeko:

1. Ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortu duenari.
2. Oposizioaldian puntuaziorik altuena lortu duenari.
3. Oinarri-arau berezietan zehaztutako merituetan puntuaziorik handiena lortu duenari, bertan adierazitako hurrenkeraren arabera.
4. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikularekin bat etorruta, gaitasun berbera duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago emakumeak direnean, eta gizonezkoei aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago gizonak direnean. Salbuespena izango da beste hautagai batzuek lanposturako neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizketarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
5. Oraindik berdinketa badago, hurrenkera-ordena zozketa bidez ezarriko da.

Hamargarrena. – Inpugnazioak

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozesura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Era berean, interesdunek deialdi honetatik eratorritako administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Prozesura Erkidearen araudiak ezarritako daukanaren arabera.



I. ERANSKINA

ZEREGIN ASKOTARIKO PEOIEN GAI ZERRENDIA.

GAI OROKORRAK

1. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Administrazio publikoen jarduteko irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua).
2. gaia: Laneko segurtasun eta osasun neurriak. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
 - a. Prebentzio Zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege dekretua. 1. artikulua. Prebentzio jardueren integrazioa.
 - b. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatutakoa.
 - i. 14. artikulua. Laneko arriskuen aurrean babesteko eskubidea.
 - ii. 15. artikulua. Prebentzio ekintzaren printzipioak.
 - iii. 17. artikulua. Lan ekipamenduak eta babes bitartekoak.
 - iv. 21. artikulua. Arrisku larria eta hurrekoa.

GAI ESPEZIFIKOAK

3. gaia: Igeltserotzan, iturgintzan, elektrizitatean, arotzerian eta sarrailagintzan tresnak eta tresnak erabiltzeari buruzko nozio orokorrak.
4. gaia: Igeltserotza, iturgintza, elektrizitate, arotzeria eta sarrailagintzan matxura eta konponketa ohikoenak.
5. gaia: Aldamioen, zirkuitzen eta zirkuitzen erabilerari buruzko nozio orokorrak
6. gaia: Bide publikoetako lanbidean erabiltzen diren makineria, lanabesak eta erremintak.
7. gaia: Aritmetikari buruzko oinarrizko nozioak. Kalkulu-eragiketa nagusiak. Zenbakia: kontzeptua, motak eta oinarrizko eragiketak. Sistema metriko hamartarra.